

OKILOMENDI, JAUN MERA (Pièce basquen en I acte)

Personnages:

Mera: Maire,, 50 ans, corpulent et bête.
Anna: Sa femme... Sèxe et méchante.
Mihiku xaharra: vieux docteur aristocratique
Santxo: Cantonnier, verbeux, buveur.
Ostalera: Aubergiste, lourd faisant le malin.
Kukutohar: vieux paysan, nerveux et méchant.
Décor: Un intérieur quelconque.

MERA: (*Il fait tremper d'un doigt dans un verre d'eau. Il appelle*) Anna, o Anna.

ANNA: (*Apparaissant*) Zer da?

MERA: Erhi hau aski bustia da engoitik... Zato orhatzarekin.

ANNA: (*Allume une chandelle y stérilise une aiguille et se met à opérer*)

Ba, ez duzu deus handirik... Hor beha eta beha hola artzeko zure erhi horri.

MERA: Emeki gero... Hor sista sista ari gabe oihal falsatzen bezela.

ANNA: Baietz ba, gizona... Ha, gizonak denak berdinak zarezte... Denak berdin putrunak...

MERA: (*Tandis qu'elle opère*) Aditu duzia phitsik ithurri hortaz? Ba omen diraene kontra direnak, ithurri berri hori eliza sahetsean egiten dualakotz. Uste dute gibelaraziko nautela... Ez dute ezagutzen nor duten beren mera berria... Ni ba ni... Joannes Okilomendi... Erakutsiko diotet hor zonbeitiz zer den mera bat herrian, eta zer den Merako karguaren bethetzea... Hai, emaztekia... Emazu ba emeki...

ANNA: Ba, aski zinuen eskua hola ez mugitzia, zure mera eta merakuarekin.... Emazu erhi hori argitarago...

MERA: (*Grimaces et gronements*)

ANNA: Hauxe, zer arno usaina duzun... Zuk arnoa edan duzu oraino nonbeit.

MERA: Arnoa edan ba... Zera... Zuk gakhoz eman hartarik... Ur eta bikarbonata zikin hortarik ba, edan dut... Phu... Mihiku zozua... Gibela ari duala, eta hortarik edateko... Eta hortarik bakharrik. Ura eta bikarbonata... Phu... Phentsatzeak berak bihotziarra emaiten daut. Hai, hai, emaztea...

ANNA: Ez dakit zertarik edaten duzun, bainan ez da bethi erremedio hori botoila hortan, bizi beheititzen...

Ez bazinu hoinbeste arno edaten, ez litazke hola zure xixtako guziak karraminxtuko.

MERA: Ai, ai...

ANNA: Badut, gizona, badut... Hori huna nun duzun. Zer arkumak othe txar batentzat... Hori... Bustiazu erhia berritz ur hortan.

MERA: Bizar egiteko puskak ere behar ditut.

ANNA: Tenore huntan bizarre...? Norat abian zira?

MERA: Itzuli bat egin behar dut plazan gaindi... Ikusi behar dut zer diotenene ithurriaz... Santxo kantonierari errana diot, aratsaldeko bietako lot dadien ithurriaren ziloa egiten, han eliza sahetsean.

ANNA: (*Lui attachant la serviette autour du cou*) Ba... Zure ithurriarekin... Aitzaki ederra duzu segurik, berritz ere ostaturat joaiteko.

MERA: Ba, ostaturat, bat... Mihiku xaharrak han aurkhitzeke gero... Ostaturat... (*Il aiguise son couteau*)

ANNA: Eta, nun egingo duzu gero ithurria? (*Elle prépare le savon*)

MERA: Han, eliza sahetsean, Ama Birjinaren aldarearen eskualdetik.

ANNA: Ha... Nunbeitit ere... Egiten ahal zinuen ba, elizatik urruntxago.

MERA: Zer zare, zu ere ene kontra?

ANNA: Ba, hori... Ez dakit ba... Hil herriak ere han-eta... Proaxionek eta hilak handik pasatu behar era... ez dakit ba...

MERA: Berdin du... Nahi duzuena erranik ere... Zuk eta bertzek... Ithurria han izanen da... Han... Eta erakutsiko diotet Okiloraendik errana, errana dela gero.

ANNA: (*Regardant par la fenêtre*) To, Mihiku... Mihiku xaharra heldu... Yes... Zertarat heldu da hori? Errana zuen ba, sendatua zinela... Ez zela gehiago jinen... (*On frappe*) Ekarzu laster paska horiek, gorde ditzadan. Idek-ozu. (*Elle disparaît*)

MERA: (*Ouvrant*) To, agur Jaun Mihiku xaharra. Zerk zabilta hemen?

MIHIKU XAHARRA: Ba, ez nuk hiretzat jina... Bainanm gauza batez oharturik jina nuk. Pasatzian hehar hintuala abisatu...

MERA: Zer da, yar zaite...

MIHIKU XAHARRA: Ez, ez nuk batere jarrigo... Hor, ohartu nuk, Santxo kantoniera, ari zela zilo egiten, elizaren ondoan, hil herriari hurbil... Eta galdu zioiat, zer ari zen han... Eta erran daitak, hik manaturik, ithurri baten ziloa egiten ari zela... Edanxkoa zela ere iduritu zautak, bere usaia ez galtzeko... Eta zer nahi erranik, handik igorri diat... Errak, ez ahal duk hik manatu, han ithurri baten muntatzea.

MERA: Zertako ez?

MIHIKU XAHARRA: Muthikoa, ez duka ikusten han kasik hil herritan hizala... Hala zer duk? Herri guzia pozoinatukoduka... Zer uste duk, hola edan ditakela hil hezurrez hazia den uretik? To, gerta lukek politik...

MERA: Ba, hori... Ez dakit ba... Nehork ez daud, orai artio, holakorik aiphatu.

MIHIKU XAHARRA: Hori, muthikoa, gauza ageria duk... Horko ura, hil gaxura izanenduk... Hir egitekoa duk, bainan toki hortan ithurribat... Horrek ez dik kanerorik... Eta gibel hori, nola duk, nik emanikako erremedioarekin?

MERA: Hobeki, hobeki, jaun Mirikua...

MIHIKU XAHARRA: (*Regardant la bouteille*) Hum... Ez duk biziki edan ur hortarik... Hartzen ahal duk basotarat bat ona gero, jan ondo guziez... Eta utz-aizkik gero arno eta gaineratikoak beregisa...

MERA: Üzten ditut, üzten ditut, Jaun Mihiku... Eta beharko oraino dutan emaztearekin.

MIHIKU XAHARRA: Hir emaztiak hortan arrazoina dik... Bon... Erranak erran... Ihauk ikuusak, eta aratsalde on... To.

MERA: Ba, aratsalde on, jaun mihiku...

MERA: (*Seul*) Debruia, ontsa erremedio zikin hori eni edanarazi beharrez ari zaizte... Beheitiaraziko diat ba botoila hori, beheititu behar bada... (*Il en verse dans un pot de fleurs*) To, edazak hik ene partia... Phu zikina... Beharrik baitut, hortxet, gordegailuan, hori baino hobeagorik (*Avec précaution, il retire une bouteille de vin, cachée dans une botte et en boit...*) Hau ba, hau duk egiazko erremedioa... Hunek bederen barnia puxka bat hunkitzen daitak... (*Il entend du bruit et vivement range sa bouteille de vin*).

ANNA: (*Rentrant, s'aperçoit de quelque chose d'insolite*) Yes... Zer ari zinen hor?

MERA: Phisik, phisik... Ene ihiziko zapeta hauieri beha... Hauk ere, ez dituala aspaldian soinian ezarri... (*Elle n'a pas l'air convaincu*)

ANNA: Mihiku laster joan da... Zato oihala lephotik esteka... Hum... Erremedio botoila horri ahatik tanka bat eman diozu...

MERA: Bakia emazu hori... Mihiku debruia... Edateko eta edateko... Phu... Ekhazuizar egitekoak.

ANNA: Han ditutzu puskak, suillardan... Aski duzu bizarra han berian egitia. Norbeit heldu bada ere, trankilago izanen zira. (*Il sort*).

ANNA: (*Seule*) (*Mimique... Elle découvre la bouteille de vin et la remplace par la bouteille de bicarbonate*)

Gizonak ba, gizonak... Pollitak zarezte. Nindagon ba nundik othe zuen arno usain

hori... Gaixoa... Nahi nuke ikusi zer bisaia eginen duen, bertze zuri hortarik turta turta edanen dulearik.

(*On frappe*)... To, Santxo... kantoniera... (*Elle parle à son mari*) Errazu, Joannes, Santxo hor duzu...

MERA: Sar-araz-azu...

ANNA: (*Avisant la bouteille de vin*) Hau behar nuke nunbeit gorde (*Elle la laisse sur place*) Nor da hor?

SANTXO: Santxo da hemen... Idek hortik...

ANNA: (*Ouvrant*) Zer... Zu hemen, tenore huntan? Zer egin zare? Berritz ere lanarekin samurtu?

SANTXO: (*Entrain, avec une musette contenant son goûter et une pelle*)... Hop, barkhatu, andere merasa... Nik ez dut zuekin phisik nahi... Ni ez naiz zure meneko, bainan jaun meraren meneko...

ANNA: Zu, Jaun meraren meneko zira, bainan sala hau nire meneko baita, pala hori utziko duzu kanpoan.

SANTXO: (*Obeissant*) Bon, ontsa da... Bahakit, bahakit ez naizela on saluna ziratuet-ko... Zer zira beldur ene galtza zikinekin, zure kadirak zikinduko dituala. Ez beldut izan... andere merasa... Ez ditut zikinduko... Jarriko naiz lurrian. Lurreko taula bederen aizu izanen ahal dut... Ez dautzut edaterat ere galdetuko... Badakit berdin ez dautagula gogotik emanen... Badut edatekoa nihaurrek... Ba, huna, hemen... (*Il boit*) On daitzula... Eta ogia eta gasna ere baitut hemen; gose naizelarik jateko.

MERA: (*Apparaissant à moitié rasé*)... To, hi hisa Santxo, holako elhasturietan... (*À sa femme*) Horren gaitik,izar ondar hau, hemen berian kenduko dut... (*Il va chercher glace et rasoir*)

ANNA: Ontsa da... Zure botoila erremedio hau kendu-eta, zure puxkak hemen emanen ditut.

MERA: (*Rentrant*) Bon, ontsa da... (*Anna s'exécute et sort*) (*Se rasant*) To, Santxo, zertarat jina hintzen?

SANTXO: (*Mangeant du pain et du fromage*) Jaun Mera... Jaun Mera, nahi nuke jakin nork manatzen duen herri huntan.

MERA: Hi, herriko langilea, ez dakika nork hauen manatzen.

SANTXO: Batere ez dakit gehiago... Kanpoan, lehenik zuk eta gero mihiku xaharra jin zaizte ene manatzerat... Hunat sartu-eta berritz, zure Madame hori ukhan dut manatzale.

MERA: Zer erran dauk mihiku xaharrak?

SANTXO: Bai, hori... Ithurrik han ez egiteko... Hango ura pozoindatua dela... Nola erran daut ba... Ha, ba... Hango ura, hilek hezurretarik jalikako gazura dela. Phu, zikina... (*Il boit à son vin*) Okhaztatzen ere nu pentsetziak berak, zer zer phesteria jaliko den phuzu hartarik.

MERA: Bon, ontsa duk, Santxo... Mirikuak arrazoina dik... Eta hortako, hasi putzu hura tapatuko duk, eta bertze putzu baten zilatzen lotuko haiz, beste toki batian...

SANTXO: Bertze toki batian? Nun?

MERA: Kukutxarrek baitik hor bahatze ttipi bat, hutsa beiratzen duena, hartan lotuko hiz zilo egiten... Haren erdi erdian.

SANTXO: Plaza hegiko baratzian?

MERA: Han berian... Baratze hura herriko lurrian duk gero. Kukutxarrek, ene aintzineko merarekin ontan baitzuian, baratze hura bere meneko hartu zian. Eta geroztik, han zeukak, iduri beria... Nehori phits arrandarik harentzat eman gabe...

SANTXO: (*Se frottant la tête en tous sens*)... To, orai, orai ikusiko ditugu ximixtak eta ortziak. Azken bozeten, ni zure alde mintzatu-eta, zaplako bat eman baitzautan Kukutxarrek, oraikoan ikusten badut, hobeko dut kontzizionezko akta egitia.

MERA: Ez duk deusen beldurrik... Emaitzik denak ene gain... Eta errok, nik manaturik hizala han... Eta ez bazako untsa johan, jin dediela ene ganat...

SANTXO: Ba, ba... Ez da dudarik hala erranen diotala...

MERA: Bon, orai, hail lanera...

SANTXO: (*sortant*) Zeruko Jauna, galdatzen dautzut egun aratsean, ene burua oraino bi beharri handi hauien artien izan ditzadan... Zeren eta, horietarik bat Kukutxarrek eskuratzentz badu, harek dituen zainekin, beharririk gabe gelditzen nuk... Ez bada oraino ausikiz lotzen... Ah, la, la, la... (*Il sort*)

MERA: (*seul*) (*il range ses affaires à barbe*) Orai konprenituko ditek herri huntan, orai, nor dan Joannes Okilomendi... Lehengo nere ilhaunurekin, sobera bakhoxak nahi zuena egiteko usaia hartua zuten... Azken mintzo zenak, harek zuen bethi arrazoin... Holakorik ez enekin... Kukutxar? Ni Kukutxarren beldur? Ez da behin ere okhiloa kukuaren beldur izan. Eta hanbat gaixto harentzat... Aski zuen bere burua ez hola erakustia ene kontra, azken bozeten...
Hum... zintzurra ere ahortia diat... Arno xorta bat ez likek kalte... (*Il regarde autour de lui, prend la bouteille dans la botte ea boit un boncoup... Affreuses grimaces*) Phu... Phu... Zer da zikurkeria hau botoila huntan... Ha, debruen figura... Gizontsa deabrua... Atxeman dik ene gordegailua... Phu... Emaztea baino deabruagorik ba othe da gero... (*On frappe*) To, norbait athean, azen ontzeko... Bon, dagotzila denak hola hola... (*Il remet la bouteille dans la botte*)... (*Vers la porte*) Aintzina, aintzina... (*Entre l'aubergiste*) To, ostalera... Nere xorte lagun gaihua hi hintzana... Nun habila hemen... Yar adi, yar...

OSTALERA: (*Debout et solennel*) Joannes, kontent nuk... kontent nuk hitaz... Azkenian badiuk mera bat herrian... Eta trinkatu behar dugula elgarrekIn, buxundatu batekin jina nuk... Baituka bi baso...

MERA: Ba, batiat hor (*Il les porte sur la table*)

OSTALERA: Ha, debrua, buxona jalitzekoah antzdi diat...

MERA: Ba, hein hori ba ahal diuk... (*Il appelle*)... Anne, ekazu buxona jalitzeko bat hunarat....

(*Ils s'assoient*)

OSTALERA: Ba, kontent nuk ithurri hortaz... Ikhusi diat Santxo zilo egiten hasia zela... Hor behar den tokian duk.

ANNA: (*Entrant*) Agur Ostalera... Hemengo aldi...

OSTALERA: Ba, ba... Bi elhen egiterat jina... Ha, hor duzia buxona jalitzekoah... Hori botoila, jali-azu zuhaurrek.

MERA: Bahakik, dudarik gabe, Kukutxarren baratzean egiten duala ithurria.

OSTALERA: (*Vivement*) Kukutxarren baratzean... Ez araiz... Santxo ikhusi diat lur zilatzen ari zela eliza sahetsean...

MERA: Ba, bainan geroztik, mihiakuak ere erran daitak, hil herrien gatik, hobe nuela han ez egitia... Eta geroztik bertze gogorik diat...

OSTALERA: (*Il sert à boire son compère*)

ANNA: (*L'arrêtant à mi-verre*) Bon, aski badu hola.

OSTALERA: Zer... Utz-zazu, emaztia... Badu baso horrek bere izeria.

ANNA: Ez tu behar gehiago... Mihiakuak debekatua deko gain-gainetik.

MERA: Bai, mihiakuaren eta emaztearen erraneri kasu egin izan benik, aspaldian lurren hazteko despeitua izanen nindukan...

OSTALERA: Utz-azu emaztia baso hori... To... Edazak ausarki... Hau buxondatua duk. Ez deuk hunek kalterik eginen (*Anna énervée vers le botte. Le mari fait un keinu à l'adresse de la femme*) (*Anna retire la bouteille de bicarbonate de sa botte et la pose sur le table*).

ANNA: Hori, arno horri huntarik nahasketa-ozu...

OSTALERA: Nun deubrutiak jali duzu botoila hori... Zer duzu botan hortan zure xahi.

MERA: Be, emazte hauk baitie hola beren sekretuzko gorde lekuek.

ANNA: (*Sèche*) Sekretuzko lekuak ba... Gizonek erakutsiak (*Elle sort énervée*) (*Ils boivent*)

OSTALERA: Errak... Zerbitzu bat egin behar dautak... Ez zokela mihiku ahul horri kasurik egin, eta muntazak ithurria, han, lehen tokian...

MERA: Kukutxarren phentzian egingo nian ba... Kukutxarrek konpreni zezan zer gostatzen den hola bere buruaren erakustia bozetenene kontra.

OSTALERA: Errak... Hik eta ez diagu egundaiño elgar saldu... Bahakik bozetenene ostattuak zer zerbitzu egin daukan... (*Confidentiel*)
Errak, eta ondoko egunetan, ithurri hori egiten baduk, han, elizaren sahetsean, ene ostattuaren aintzinean, jendia ithurri hortarat bilduko duk... Eta ithurritik ostatturat ere menturaz... Ikhusten duka ondorioa... Hir eta ene onetan duk ithurri hora egin dezakan lehen toki hortan.

MERA: (*Solennel*) Ontsa duk... Baduk aski erranik... Konprenitu dlat... Konprenitu diat... Ene hitza emaiten daiat, ithurria hik nahi dukan tokian izanen duk eta bertze nehon ez...

Ene hitza hor duk... Eta Okilok hitzemana, hitzemana duk gero...

OSTALERA: To, milesker, gaizoa... Ez nian bertzerik igurikatzen hire ganik... To, eda-zak... Hi eta ni, egundaiñoko xorteko adixkideak gitut gero...
(*Ils trinquent et boivent debout.*)

MERA: Bon, eta erran bezala, konda zak ene hitzian.

OSTALERA: Ontsa duk... To, botoila ondar hori aski duk atxikitzia afariko... Ta sarri artio to... Pasatzian, sar jalitze bat egin-zak.

MERA: Ba, muthikoa, ba... Jinen nuk azken berriekin (*Ostalera sort*)
(*Seul*) Ha, beraz orai joan hehar dut Santxoren atzemaiterat lehen lehen. Agian ez tuk segidan Kukutxarrerat joan... Gero berritz... Ha, botoila hau gorde dezagun, emaztia jin baino lehen.

(*Il va vers la botte et se ravise*) Ez, hor ez... Hori jada arrapatua dik... To, sarri artio hortxet ezarriko diat, palto horren sakelan... (*Il va la cacher sous le paletot, sous le regard de sa femme qui est entrée à son insu*)

ANNA: (*Furieuse*) He ben... baliatu duzu ontsa (*Il essaie en vain de cacher sa bouteille*)
Justatu duzu ontsa botoila muthurra? Eta edanaren ondorioak nork beharko ditu jasan?... Nik... Nik ba nik... Gero ariko zira intzirika, hi hemendik eta ha handik... (*L'imitant*) Mihikua ekazu, mihikua... Ez du ez balio arno hori ezin gordez artzia... Hemen pausatuko duzu hori, plazer baduzu, hemen erremedioaren ondoan... Hor agerian egonen dira biak... Eta ikusiko duzu zoin duzun lehenik hustuko... (*On frappe*)... Ha, oraino ere bertze norbeit... Zu mera sartuz geroz, etxe madarikatu hantan, ez gira gehiago minuta bat deskantsuan... Mera eta merakoa, segur gauza pollitak dira... Nik bethi, bi sosetan sal nezake bat eta bertzea. Joaiten ahal zira idekitzerat... (*Elle sort*)

MERA: (*Criant*) To, Kukutxar... Zu hemen... Jar zaite.

KUKUXAR: (*Le prenant de haut et déchainé*)... Kukutxar ba, Kukutxar hemen. Hala uste hina Santxo xakurra ene aunhitzerat igorri-ta, atx egin gabe egonen nintzala.

MERA: Gizona ezti zaite... Esplika gaiten...

KUKUXAR: Aski esplikaturik baduk hol'hol... Hi, aizen bezelako kurkuila... Zer uste duk, mera hizala-eta, nahi dukana eginen dukala herrian.

MERA: (*Se fâchant*) Errespeta nezazu, bertzenaz errespetaraziko dut gero ene burua... Ikusiko dugu gero exarpa hartzen badut.

KUKUXAR: Exarpa ba... exarpa... Joare uhal bat ba behar huke hik lepotik, ez exarpa ez...

MERA: Errazu berritz holakorik... Errazu berritz...

KUKUXAR: Sar-edi sar ene baratzean, hire ithurri eta mithurriekin... Ikusiko duk zer gostako zaukan...

MERA: Zure baratzia herriko lurrian da... Nik hor ithurria nahi dualarik muntatuko duk... nahi dualarik.

KUKUXAR: Munta zak... Bainan jakintzak hik ithurria muntatzen baduk, izanen direla ere boketa muntatuko dutenak.

MERA: Muntaazu nahi duzuna... Ikusiko duzu nor den nagusituho... Eta, orai, zoazi kanporat...

KUKUXAR: Joan nuk... Bainan jakin tzak bertze norbeit ere nik bertze nonbeitik etorriko duala.

(*Silence, où le maire grogne*)

ANNA: (*Entrant*) Yes... Zer zuen gizon horrek holako ortzian... Ez duzu ba horren baratzean ithurria egiten?? (*Elle arrive avec le panier à éplucher des pâtes*)

MERA: Ez... Ez nuen hola egingo... Bainan orai bertzerik izanen da... Kukutxarrek nahi edo ez nahi, ithurria han izanen da. Han... Bere baratzearen erdi erdian... Irakutsiko diot nik Kukutxarri nor den mera herri huntan.

(*Il se chausse*)

ANNA: (*Glapissant des ha ha ha moqueurs*) Badakizu norbeitek gizon batentzat zer erran zautan behin, ezkontzari buruz, haren berri galde egin-eta?

MERA: Zer erran zautzun gizon harentzat?

ANNA: Gizon hura ez zela ez zaldi eta ez asto...

MERA: (*Riant lourdement*) Beraz mando zela?...

ANNA: Ez, ez... Ez zen arrunt astoa bezin astoa, ez eta ere arrunt zaldia bezen abila... Bietarik ba zuen... Bainan ez zen mandoa... Mandoa baino gutiago zen...

MERA: Zer zen ba?...

ANNA: Hori, orai asto eta gero zaldi... Gero zaldi eta ondotik berritz asto... eta hola bethi zauzika astotik zaldirat eta zalditik astorat.

MERA: Giza gaizoa, bide zuen lan bizitzen eta denen ara egiten ere, hola balinbazen...

ANNA: Ba, ba, bazuen lana bizitzen eta denen ara egiten ere, gizagaizoak... Eta badakizua nor zen delako gizon hura?

MERA: Nor othe?

ANNA: Ha... (*Enervée, elle hausse les épaules*) Eta nik behar nuela haren emazte izan.

(Rideau)